



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## INFORMACIÓN CIUDADANA

### Concesión de ayudas o subvenciones

<b>Objeto</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• La concesión de ayudas económicas o subvenciones como estímulo para la organización y realización de diversas actividades culturales, deportivas, sociales o de ocio, en el municipio de Ermua, que contribuyan a realizar los objetivos previstos por el Ayuntamiento de la Villa de Ermua en los servicios siguientes:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Sociosanitarias</li> <li>✓ Igualdad de oportunidades</li> <li>✓ Acción Social</li> <li>✓ Cooperación Internacional</li> <li>✓ Juventud</li> <li>✓ Euskera</li> <li>✓ Cultura</li> <li>✓ Educación</li> <li>✓ Deportes</li> <li>✓ Medio Ambiente</li> </ul> </li> <li>• Se entiende por subvención cualquier ayuda directa o indirecta, valorable económicamente, realizada a expensas del Ayuntamiento de la Villa de Ermua, sus organismos autónomos y sociedades públicas dependientes, a favor de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, y que cumpla los requisitos siguientes:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Que la entrega de la ayuda o subvención se realice sin contraprestación directa de las personas beneficiarias</li> <li>✓ Que la entrega de la ayuda o subvención esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizado o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo la persona beneficiaria cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido</li> <li>✓ Que el proyecto, la acción, conducta o situación para la que se otorga la ayuda o subvención tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública que complemente o supla las atribuidas a la competencia municipal</li> </ul> </li> <li>• El otorgamiento de las ayudas o subvenciones se atenderá a las siguientes normas:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Tendrán carácter voluntario y eventual</li> <li>✓ No serán invocables como precedente</li> <li>✓ No será exigible aumento o revisión de la ayuda o subvención concedida</li> <li>✓ El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada</li> </ul> </li> <li>• Serán nulos los acuerdos de concesión de ayudas o subvenciones que obedezcan a mera liberalidad</li> </ul>
<b>Qué es subvencionable</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Son subvencionables las actividades programadas que se realicen durante el año de su petición en el ámbito territorial del municipio de Ermua</li> <li>• No serán subvencionables:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Las actividades que tengan lugar fuera del ámbito territorial del municipio de Ermua, excepto que por su importancia o interés público y social se estime que puedan contribuir a difundir el nombre del municipio de Ermua</li> <li>✓ Los intereses deudores de las cuentas bancarias</li> <li>✓ Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales</li> <li>✓ Los gastos de procedimientos judiciales</li> </ul> </li> </ul>
<b>Unidad tramitadora</b>	Área promotora de las ayudas o subvenciones
<b>Órgano de resolución</b>	Alcalde/sa, Tte. Alcalde o concejal/a Delegado/a del Área promotora de las ayudas o subvenciones

<b>Destinatarios/as</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Entidades y asociaciones sin ánimo de lucro, domiciliadas en Ermua, salvo que en las bases específicas reguladoras de las ayudas o subvenciones que se concedan con cargo a determinados programas o planes de actuación se contemple la concurrencia de una causa concreta, justificativa de esta excepción, de manera expresa. Así mismo, las entidades o asociaciones deberán estar inscritas en el Registro General de Asociaciones dependiente del Gobierno Vasco, y en sus estatutos y funcionamiento no mantendrán actitud discriminatoria por razones políticas o ideológicas, religiosas, de sexo o edad</li> <li>Personas físicas a título individual para desarrollar una iniciativa de carácter esporádico, sin ánimo de lucro y con residencia en Ermua</li> <li>Cuando se prevea expresamente en las bases reguladoras, podrán acceder a la condición de beneficiarias las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la ayuda o subvención</li> </ul>
<b>Documentación necesaria</b>	La que se determine en la norma reguladora o convocatoria de ayudas o subvenciones de que se trate
<b>Normativa legal</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril</li> <li>Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del gobierno local</li> <li>Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero</li> <li>Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones</li> <li>Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la concesión de ayudas y subvenciones, aprobada por el Pleno de la Corporación en sesión de fecha 24 de noviembre de 2004. BOB nº 44, de 4 de marzo de 2005. Modificada por el Pleno de la Corporación en sesión de fecha 27 de febrero de 2006. BOB nº 88, de 10 de mayo de 2006. Modificada por el Pleno de la Corporación en sesión de fecha de 2 de noviembre de 2006. BOB nº 247, de 29 de diciembre de 2006</li> <li>Norma municipal de ejecución presupuestaria</li> </ul>
<b>Importe del tributo</b>	Exento
<b>Lugar de solicitud</b>	Abiapuntu. De lunes a viernes de 8:30 a 14:30 horas
<b>Plazo de solicitud</b>	El que se establezca en las bases reguladoras de la concesión de las ayudas o subvenciones
<b>Correo electrónico</b>	Queremos prestarle el mejor servicio y atender con prontitud su solicitud, por lo que agradeceremos su colaboración mediante la autorización del uso del correo electrónico como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación de cuantos actos administrativos le afecten en relación con su solicitud



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## INFORMACIÓN CIUDADANA

### Concesión de ayudas o subvenciones

#### Presentación de solicitudes

- La solicitud se presentará en el Registro de Entrada del Ayuntamiento o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, con arreglo al modelo normalizado, en el plazo de veinte días hábiles contados a partir del día hábil siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, debiendo acompañarse los documentos siguientes:
  - ✓ Nombre, razón social y número de identificación fiscal de la persona o asociación que desarrollará la actividad
  - ✓ Certificado en el que demuestre estar inscrita en el Registro de Asociaciones.
- Proyecto de la actividad concreta o programa a desarrollar, en el que se especifiquen:
  - ✓ Los objetivos, participantes, fechas y lugar de celebración
  - ✓ Presupuesto desglosado de ingresos y gastos, con indicación de los medios financieros previstos (cuotas, donativos...) para su realización
  - ✓ Declaración jurada de la persona representante de la entidad relativa a la identidad de las personas miembros de su órgano directivo y sobre el número de socios/as
  - ✓ Certificados expedidos por la Hacienda Foral de Bizkaia y la Tesorería General de la Seguridad Social de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, respectivamente
- Siempre que las personas interesadas así lo declaren y el Ayuntamiento de la Villa de Ermua tenga constancia de que alguno/s de los documento/s solicitado/s en las Bases se encuentra en poder del propio Ayuntamiento quedarán eximidas de presentarlo/s
- Si la solicitud no reúne todos los requisitos, el órgano instructor requerirá a la persona interesada para que subsane la falta en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992

#### Plazo de tramitación

Máximo, 5 meses

#### Cumplimiento de la LOPD (continúa)

Para su tranquilidad y seguridad le informamos de que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, los datos de carácter personal que se obtengan de su solicitud serán recogidos en un fichero denominado "EXPEDIENTES DE SECRETARÍA", del que es responsable el Ayuntamiento de la Villa de Ermua, con domicilio en Marqués de Valdespina 1- 48260 Ermua (Bizkaia). Este fichero, que tiene como finalidad la gestión de la documentación administrativa, ha sido notificado a la Agencia Vasca de Protección de Datos y cuenta con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos

En cualquier caso, la suscripción de este documento implica que la persona solicitante resulta informada y da su consentimiento al tratamiento de sus datos para la finalidad mencionada

Le recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de Seguridad del Ayuntamiento de la Villa de Ermua a la dirección antes indicada con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Para su comodidad, puede ejercer estos mismos derechos a través de la web municipal en la dirección siguiente: [www.ermua.es](http://www.ermua.es)>Abiapuntu>Trámites municipales

<b>Cumplimiento de la LOPD</b>	Finalmente se informa que la formalización de la solicitud de licencia comportará la manifestación de la persona solicitante de que la información facilitada en la misma es cierta y que no ha sido omitida o alterada ninguna información que pudiera ser desfavorable para la misma, quedando informada de que la falsedad u omisión de algún dato supondrá la imposibilidad de prestar correctamente el servicio
<b>Silencio administrativo</b>	Desestimatorio
<b>Procedimiento de concesión</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• El procedimiento de concesión de subvenciones y ayudas se tramitará en régimen de concurrencia competitiva</li> <li>• Tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento en el cual la concesión de las subvenciones o ayudas se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios</li> </ul>
<b>Instrucción del expediente</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• El órgano competente para la instrucción del expediente será el/la Director/a del Área promotora o funcionario/a responsable directo/a de la tramitación de las ayudas o subvenciones convocadas, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución</li> <li>• Las actividades de instrucción comprenderán: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Petición de cuantos informes estime necesarios para resolver o que sean exigidos por las normas que regulan la subvención. En la petición se hará constar, en su caso, el carácter determinante de aquellos informes que sean preceptivos. El plazo para su emisión será de diez días naturales, salvo que el órgano instructor, atendiendo a las características del informe solicitado o del propio procedimiento, solicite su emisión en un plazo menor o mayor sin que en este último caso pueda exceder de dos meses Cuando en el plazo señalado no se haya emitido el informe calificado por disposición legal expresa como preceptivo y determinante, o, en su caso, vinculante, podrá interrumpirse el plazo de los trámites sucesivos</li> <li>✓ Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme a los criterios, formas y prioridades de valoración establecidas en la base reguladora de la subvención o, en su caso, en la convocatoria</li> <li>✓ La base reguladora de la subvención podrá contemplar la posibilidad de establecer una fase de preevaluación en la que se verificará el cumplimiento de las condiciones impuestas para adquirir la condición de persona beneficiaria de la subvención</li> </ul> </li> </ul>
<b>Resolución (continúa)</b>	<p>Finalizada la instrucción del expediente, la Junta de Gobierno Local elevará al/a la Alcalde/sa, Teniente de Alcalde o concejal/a Delegado/a competente por razón de la materia objeto de la subvención o ayuda convocada, quien resolverá el procedimiento, la oportuna propuesta de resolución, de acuerdo con las condiciones siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ La resolución se motivará y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte</li> <li>✓ Deberá contener la persona solicitante o la relación de personas solicitantes a las que se concede la subvención o ayuda y la desestimación del resto de las solicitudes</li> </ul>



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## INFORMACIÓN CIUDADANA

### Concesión de ayudas o subvenciones

#### Resolución

El plazo máximo de resolución y notificación es de tres meses. El plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria, salvo que ésta posponga sus efectos a una fecha posterior

La resolución de la concesión de la subvención o ayuda pondrá fin a la vía administrativa. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo

#### Obligaciones de las personas beneficiarias

Son obligaciones de las personas beneficiarias de las ayudas o subvenciones que otorgue el Ayuntamiento de la Villa de Ermua, sus organismos autónomos y sociedades públicas dependientes:

- ✓ Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones
- ✓ Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención
- ✓ Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competente, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores
- ✓ Comunicar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos

- ✓ Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social
- ✓ Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control
- ✓ Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control
- ✓ Adoptar las medidas de difusión que se establezcan en la norma reguladora o convocatoria de las ayudas o subvenciones, a fin de informar que el proyecto, la actividad o el comportamiento que fundamenta la concesión de la ayuda o subvención se lleva a cabo con la colaboración y/o la financiación del Ayuntamiento de la Villa de Ermua
- ✓ Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 34 de la Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la concesión de ayudas y subvenciones

#### Justificación de gastos (continúa)

Para percibir la totalidad de la ayuda o subvención será necesario presentar al Ayuntamiento, además de la que se exija en las bases reguladoras específicas, la siguiente documentación:

- ✓ Memoria específica de la actividad realizada que contemple al menos, los aspectos siguientes:
- ✓ Valoración del objetivo, fotografías, asistencia, actividades, recursos utilizados
- ✓ Facturas originales justificativas del gasto o copias compulsadas en el caso de que las facturas originales hubieran sido aportadas en otro procedimiento instado por la persona interesada a fin de obtener la correspondiente

<b>Justificación de gastos</b>	<p>subvención para la misma finalidad</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Balance de ingresos y gastos de la actividad</li> <li>✓ Un ejemplar del programa, cartel anunciador u otra documentación gráfica, para el desarrollo de la actividad subvencionada, debiendo constar en tales ejemplares el patrocinio del Ayuntamiento de la Villa de Ermua en un lugar preponderante y con un tamaño que permita claramente su distinción del resto de patrocinadores</li> <li>✓ Fotocopia de los acuerdos de concesión de ayudas económicas por otras instituciones</li> <li>✓ La documentación justificativa deberá presentarse en el plazo de un mes desde la finalización de la actividad subvencionada, salvo que en la convocatoria se establezca otro plazo específico</li> </ul>
<b>Compatibilidad de las ayudas o subvenciones</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• La concesión de las ayudas o subvenciones que otorga el Ayuntamiento de la Villa de Ermua será compatible con cualquier otro tipo de subvención o ayuda</li> <li>• En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada</li> </ul>
<b>Modificación de la resolución</b>	<p>Concedida una subvención, a solicitud de la persona interesada podrá acordarse su modificación por el Alcalde o Teniente de Alcalde Delegado/a competente por razón de la materia objeto de la ayuda o subvención convocada, oída la Junta de Gobierno Local, previo informe del órgano instructor, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Que exista consignación presupuestaria</li> <li>✓ Que las circunstancias que justifiquen la modificación no hayan dependido de la voluntad de la persona beneficiaria</li> <li>✓ Que las condiciones, elementos o circunstancias que se tuvieron en cuenta para conceder la ayuda o subvención se hayan visto modificadas, por lo que resulta necesario proceder a una revisión de la subvención o ayuda concedida</li> </ul>
<b>Reintegro</b>	<p>Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la ayuda o subvención hasta la fecha en que se acuerde que procede el reintegro, y la cuantía fijada en el artículo 38.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en los casos señalados en el artículo 37 de la mencionada Ley General de Subvenciones</p>
<b>Observaciones</b>	<p>Las actividades objeto de subvención estarán sometidas, en función de sus características o naturaleza, al cumplimiento de la normativa sobre espectáculos públicos y demás normativa concordante en materia de seguridad</p>
<b>Documentos relacionados</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la concesión de ayudas y subvenciones</li> <li>• Criterios básicos de identidad corporativa para la elaboración de programas, folletos, carteles anunciadores y cuanta documentación gráfica o escrita generen las actividades beneficiarias de una subvención municipal</li> </ul>
<b>Código</b>	Soc 01/03-2007
<b>Última revisión</b>	20/01/2007
<b>Vigente hasta</b>	Indefinido



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

### Laguntzak eta diru-laguntzak ematea

#### Zein da helburua?

- Ermua udalerrian laguntzak edo diru-laguntzak ematea, kultur, kirol, gizarte eta astialdi jarduera ezberdinak antolatu eta burutzeko pizgarri gisa. Horiek Ermua Hiriko Udalak hurrengo zerbitzuetan ezarritako helburuak gauzatzen lagundu beharko dute:
 

✓ Gizarte eta osasuna	✓ Gazteria	✓ Hezkuntza
✓ Berdintasuna	✓ Euskara	✓ Kirolak
✓ Gizarte Ekintza/ Ongintzako Erakundeak	✓ Kultura	✓ Ingurumena
✓ Nazioarteko lankidetzak		
- Diru-laguntzat jotzen da Ermua Hiriko Udalak, bere erakunde autonomoek eta mendeko elkarte publikoek pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuen alde egin eta ekonomiaren aldetik balora daitezkeen zuzeneko edo zeharkako edozein laguntza, hurrengo betekizunak betetzen baditu:
  - ✓ Laguntza edo diru-laguntza onuradunen zuzeneko ordainik gabe ematea.
  - ✓ Laguntza edo diru-laguntzaren emakida helburu jakin bati, proiektu baten burutzapenari, jarduera bat egiteari, jarrera berezi bat hartzeari edo egoera bati lotuta egotea, horiek guztiak eginda edo egitekoak direnak; ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu onuradunak.
  - ✓ Laguntza edo diru-laguntza jasotzen duen proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburua herri-erabilerako edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzea edo udal eskumenari esleitutako helburu publikoak osatu edo ordeztzen dituen beste bat bultzatzea izatea.
- Laguntzak edo diru-laguntzak emateak hurrengo arauak jarraituko die:
  - ✓ Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.
  - ✓ Ezin izango dira aurrekari legez erabili
  - ✓ Ezin izango da eskatu emandako laguntza edo diru-laguntzaren gehikuntzarik edo berrikuspenik
  - ✓ Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera
- Baliogabeak izango dira eskuzabaltasun hutsari jarraitzen dioten laguntzak edo diru-laguntzak emateko erabakiak

#### Zer lagun daiteke diruz?

- Ermua udalerrian lurralde-eremuan eskatzen diren urtean burutzen diren jarduerak diruz lagun daitezke
- Honakoak ez dira diruz lagunduko:
  - ✓ Ermua udalerrian lurralde-eremutik kanpo burutzen diren jarduerak, beren garrantziagatik edo herri-eta gizarte-interesagatik Ermua udalerrian izena zabaltzen lagun dezaketenak izan ezik
  - ✓ Lehiaketa ofizialetan normalean parte hartetik ondorioztatutako gastuak, beren garrantziagatik edo herri-eta gizarte-interesagatik Ermua udalerrian izena zabaltzen lagun dezaketenak izan ezik
  - ✓ Bankuko kontuen interes zordunak
  - ✓ Interesak, errekaratuak eta zehapen administratiboak eta penalak
  - ✓ Prozedura judizialeko gastuak

#### Zein unitatek tramitatu du?

Laguntzak edo diru-laguntzak sustatzen dituen arloak

#### Zein organok erabakitzen du?

Alkatea, alkateordea edo laguntzak edo diru-laguntzak sustatzen dituen arloko zinegotzi eskuordetua

<b>Norentzat da?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ermuan helbideratuta dauden eta irabazi-asmorik ez duten erakunde eta elkarteak oro har, jarduera plan edo programa zehatzen kontura ematen diren laguntzak edo diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri espezifikoetan salbuespen gisa bestelakorik jasotzen ez bada, beti ere Eusko Jaurlaritzaren mendeko Elkarteen Erregistro Nagusian izena emanda badute. Era berean, euren estatutuetan eta funtzionamendu-arauetan ezin izango da azaldu politika edo ideologia, erlijio, sexu edo adin arrazoiengatik bereizkeriarik egingo dutenik</li> <li>• Pertsona fisikoak, euren aldetik noizbehinka ekimenen bat garatu nahi badute, irabazi-asmorik ez badute eta Ermuan bizi badira</li> <li>• Oinarri arautzaileetan beren-beregi hala xedatzen denean, onuradunak izan daitezke pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte publikoak edo pribatuak, ondasunen elkarteak edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, proiektuak eta jarduerak egin edo jarrera jakin bat har dezakeen edozein ekonomi edo ondare unitate banatua, edo laguntza edo diru-laguntza emateko egoeran dauden pertsona guztiak</li> </ul>
<b>Zein dokumentu behar da?</b>	Arau erregulatzailan edo laguntza edo diru-laguntzen deialdian zehazten direnak
<b>Araudia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu zuena</li> <li>• Gobernu lokala modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legea</li> <li>• Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioa Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa</li> <li>• Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra</li> <li>• 2004ko azaroaren 24ko Udal Osoko Bilkuran onetsi eta 2005eko martxoaren 4ko BAO, 44. alean, argitaratutako laguntzak eta diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ordenantzak 2006ko otsailaren 27ko Udal Osoko Bilkuran aldatu eta 2006ko maiatzaren 10eko BAO, 88. alean, argitaratu zenak eta, berriro ere, 2006ko azaroaren 2ko Udal Osoko Bilkuran aldatu eta 2006ko abenduaren 29ko BAO, 247. alean, argitaratutakoak</li> <li>• Aurrekontua burutzeko udal araua</li> </ul>
<b>Zenbat ordaindu behar da?</b>	Ez da ezer ordaindu behar
<b>Non aurkeztu eskaria?</b>	Abiapuntun. Astelehenetik ostiralera: 8:30etatik 14:30etara
<b>Noiz aurkeztu behar da eskaria?</b>	Laguntzak edo diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarrietan ezarritakoa
<b>Posta elektronikoa</b>	Zerbitzurik onena emateaz batera egiteko aurkeztu duzun lizentzia-eskabideari ahalik eta bizkorren erantzun nahi diogu, horregatik zure posta elektronikoa erabiltzeko baimena eskatzen dizugu, elkarrekin komunikatzeko, dokumentazioa elkartrukatzeko eta zure eskabideari loturiko administrazio-egintza guztiak jakinarazteko





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

### Laguntzak eta diru-laguntzak ematea

#### Eskabideak aurkeztea

- Eskabidea udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko da, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliko da, beti ere araututako ereduari jarraituz. Horretarako hogeit hamar laneguneko epea egongo da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
  - ✓ Jarduera garatuko duen pertsona edo elkartearen izena, sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia
  - ✓ Elkartearen Erregistroan izena emanda duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
  - ✓ Garatu nahi den programa edo jarduera zehaztuzko proiektua: Helburuak, partaideak, egunak eta tokiak zehaztu beharko dira
  - ✓ Sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua, berau burutzeko aurreikusi diren finantza-bideak adieraziz (kuotak, dohainak, etab.)
  - ✓ Erakundeko ordezkariaren zinpeko adierazpena, erakundeko zuzendaritza-organoko kideen nortasunari eta bazkide kopuruari buruz
  - ✓ Bizkaiko Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela adierazita, hurrenez hurren
- Interesdunek hori adierazten dutenean, eta Ermua Hiriko Udalak dakienean oinarrietan eskatutako dokumentuetako bat Udalak berak duela, interesdunak hori aurkeztetik salbuetsita egongo dira
- Eskabideak betekizun horiek guztiak betetzen ez baditu, organo instrukzio-egileak agindeia egingo dio interesdunari, akatsa zuzen dezan. Horretarako gehienez ere hamar laneguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoen bezala

#### Tramitazio epea

5 hilabetekoa, gehienez

#### Babesteko lege organikoa betetzea

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz, lasai egon eta seguru senti zaitezten, honakoaren bitartez adierazten dizugu eman dizkiguzun datu pertsonalak IDAZKARITZAKO ESPEDIENTEAK delako fitxategi baten jasoko direla eta fitxategi horren arduraduna Ermua Hiriko Udala dela, zeinak Valdespinako Markesa 1. 48260 Ermuan helbidea duen. Administrazioako agiriak gestionatzea helburu duen fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi zaio, hortaz, behar diren neurri guztiak ditu datuen segurtasuna bermatzeko.

Hori horrela, honako dokumentua sinatzeak esan nahi du eskatzailea jakinaren gainean dagoela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuarekin tratatzeko.

Gogorazten dizugu aukera daukazula emandako datuak eskuratzeko edo, behar izanez gero, aipaturiko legean ezarritakoaren arabera zuzenketak, kontraktasuna edo deuseztatpena eskatzeko. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko diozu adierazitako helbidera Ermua Hiriko Udaleko Segurtasun Arduradunari ondorengo datuak jasoz: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Erosoago gerta dakizun, udal web orriaren bitartez ere egikari dezakezu eskubide hori, honako helbidean: [www.ermua.es](http://www.ermua.es)>Abiapuntu>Udal kudeaketak.

Halaber, eskatzaileak adierazten du emandako informazioa egiazkoa dela eta ez duela berarentzat kaltegarria gerta litekeen informaziorik gorde edo aldatu, eta badakiela daturen bat eman ez edo egiazkoa ez izateak zerbitzua behar bezala ez jasotzea ekar liezaiokeela.

<b>Administrazio isiltasuna</b>	Gaitzetsia
<b>Emakidari buruzko prozedura</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diru-laguntzak eta laguntzak emateko prozedura norgehiagoka erregimenaren bidez bideratuko da</li> <li>• Norgehiagokatzat hartuko da diru-laguntzak edo laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuta egingo den prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde zuzenetik ezarritako irizpideen arabera eskabideen arteko balorazio lehentasunak ezartzeko, eta deialdian kreditu erabilgarriaren barnean finkatutako muga izanda, aipatutako irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena izan dutenei esleitzeko</li> </ul>
<b>Espedientea bideratzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espedientea bideratzeko organo eskuduna deitutako laguntza edo diru-laguntzak tramitzeko zuzeneko ardura duen funtzionarioa edo sustatu duen Arloko zuzendaria izango da. Horrek, administrazioaren bidez egingo ditu datuak zehaztu, jakin eta egiaztatze egokitzat jotzen dituen jarduera guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena</li> </ul> <p>Honako hauek burutu beharko dira bideratzeko jardueretan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen edo diru-laguntza arautzen duten arauak eskatzen dituzten txosten guztiak eskatzea. Eskabidean, hala badagokio, nahitaezko txosten horien izaera erabakigarria adieraziko da. Egutegiko hamar eguneko epea egongo da txostena emateko. Hala ere, salbuespena izango da eskatutako txostenaren edo prozeduraren beraren ezaugarriak kontuan hartuta, organo instrukzio-egileak goizago ala beranduago ematea eskatzen duenean. Dena den, epea ezin izango da bi hilabetetik gorakoa izan</li> <li>Adierazitako epea igaro bada eta legez edo beren-beregi nahitaezko eta erabakigarri edo, hala badagokio, lotesle gisa kalifikatu den txostena eman ez bada, eten egin ahal izango da hurrengo tramiteen epea</li> <li>✓ Egindako eskabide edo eskaerak diru-laguntza arautzeko oinarrian edo, hala badagokio, deialdian ezarritako irizpide, modu eta balorazio lehentasunen arabera ebaluatzea</li> <li>✓ Diru-laguntza arautzeko oinarriak aurre-ebaluzioaren fasea ezar lezake. Bertan diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko da</li> </ul>
<b>Ebazpena</b>	<p>Espedientea bideratzen amaitutakoan, Tokiko Gobernu Batzarrak alkateari, alkateordeari edo deitutako diru-laguntza edo laguntzaren xedearengatik eskumena duen zinegotzi eskuordetuari aurkeztuko dio. Horrek prozedura ebatzi eta dagokion ebazpen-proposamena egingo du, honako baldintza hauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ebazpena arrazoitu egingo da, eta edonola ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak ziurtatu beharko dira</li> <li>✓ Diru-laguntza edo laguntza jasoko duen eskatzailea, edo jasoko dutenen zerrenda azaldu beharko da ebazpenean, bai eta gainerako eskabideen gaitzespena ere</li> <li>✓ Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epea deialdi egokia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen, baldin eta deialdiak bere ondoreak geroagoko egun baterako atzeratzen ez baditu</li> <li>✓ Diru-laguntza edo laguntza emandakoan amaituko da administrazio bidea. Ebazpena jakinarazi gabe gehieneko epea mugaeguneratzen bada, interesdunek emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu ahal izango dute</li> </ul>



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

### Laguntzak eta diru-laguntzak ematea

#### Onuradunen betebeharrak

Honako hauek dira Ermua Hiriko Udalak, bere erakunde autonomoek eta mendeko elkarte publikoek ematen dituzten laguntza edo diru-laguntzen onuradunen betebeharrak:

- ✓ Xedea betetzea, proiektua burutzea, jarduera egitea, edo diru-laguntza edo laguntza ematea oinarritzen duen jokabidea izatea
- ✓ Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea, baita jarduera egiten dela eta diru-laguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen dela ere
- ✓ Kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatu eta egiaztatzeko egin ditzaketen beste jarduketak onartzea; gainera, jarduera horiek egiteko eskatzen zaien informazioa eman beharko dute
- ✓ Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen berri ematea  
Horien guztien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren egiaztapena baino lehen
- ✓ Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen
- ✓ Kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezalako auditoretza duten gainerako agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakiokeen merkataritza eta arlokako legeriaren arabera, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileetan eskatzen diren berariazko erregistroak eta kontabilitate orriak ere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki betetzen direla bermatzeko
- ✓ Jasotako fondoak aplikatzeko egiaztagiria gordetzea, elektronika agiriak barne, egiaztapen eta kontroleko jarduketak egin daitezkeelako horien gainean
- ✓ Arau erregulatuaz edo laguntza edo diru-laguntzen deialdian ezartzen diren hedatzeko neurriak hartzea, laguntza edo diru-laguntza ematea arrazoitzen duen proiektua, jarduera edo jarrera Ermua Hiriko Udalaren laguntzaz edota finantzaketaz burutzen dela jakinarazteko asmoz
- ✓ Laguntzak eta diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ordenantza 34. artikuluan ezarritako kasuetan jasotako fondoak itzultzea

#### Gastuak frogatzea

Laguntza edo diru-laguntza osoa eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da oinarri espezifiko arautzaileetan eskatutakoaz gain, honako agiri hauek ere udalean aurkeztea:

- ✓ Egindako jardueraren memoria zehatza; honako alderdi hauek agertu beharko ditu, gutxienez:
- ✓ Helburuaren balorazioa, argazkiak, bertaratze maila, jarduerak, erabilitako baliabideak
- ✓ Gastua egiaztatzen duten jatorrizko fakturak edo konpultsatutako fotokopiak, jatorrizko fakturak helburu berbererako dirulaguntza eskuratzeko beste prozedura baten aurkeztu direnean
- ✓ Jarduerako sarrera eta gastuen balantzea
- ✓ Diruz lagundutako jardueraren garapenari buruzko programaren, iragartzeko kartelaren edo idatzizko beste agiri baten ale bat. Ale horietan Ermua Hiriko Udalak jarduera babestu duela agertu beharko da, leku nagusian eta gainerako babesleetatik argi bereizteko moduko tamainan
- ✓ Beste erakundeen laguntza ekonomikoak emateko erabakien fotokopia
- ✓ Frogagiriak diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik hilabete bateko epean aurkeztu beharko dira, deialdian beste epe espezifiko bat ezarri ezean

<b>Laguntza edo diru-laguntzen bateragarritasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ermua Hiriko Udalak ematen dituen laguntza edo diru-laguntzak eta beste edozein diru-laguntza edo laguntza bateragarriak izango dira</li> <li>• Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin batera</li> </ul>
<b>Ebazpena aldatzea</b>	<p>Diru-laguntza bat emandakoan, interesdunak hala eskatuta, alkateak, alkateordeak edo deitutako diru-laguntza edo laguntzaren xedearengatik eskumena duen zinegotzi eskuordetuak erabaki ahal izango du hori aldatzea, Tokiko Gobernu Batzarrari entzun eta organo instrukzio-egileak txostena egin ondoren, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aurrekontuko diru-izendapena egotea</li> <li>✓ Aldaketa justifikatzen duten zirkunstantziak onuradunak hala nahi izanda gertatu ez izana</li> <li>✓ Laguntza edo diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintza, elementu edo zirkunstantziak aldatu izana, horregatik beharrezkoa izango baita emandako diru-laguntza edo laguntza berraztertzea</li> </ul>
<b>Itzulketa</b>	<p>Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan zehaztutako kasuetan bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta berandutze-interesak eskatzea laguntza edo diru-laguntza ordaindu zen egunetik itzuli egin behar dela erabakitzen den egunera arte. Zenbatekoa Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 38.2 artikuluan ezarritakoa izango da</p>
<b>Oharrak</b>	<p>Diruz lagundutako jarduerak ikuskizun publikoei buruzko araudia eta segurtasun arloan bat datozen gainerako arauak bete beharko dituzte, beren ezaugarri edo izaeraren arabera</p>
<b>Zerikusia duten dokumentuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntzak eta diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ordenantza</li> <li>• Udal diru-laguntza jasotzen duten jarduerak sortzen dituzten programak, liburuxkak, iragartzeko kartelak, eta irudizko edo idatzizko agiriak egiteko udalbatzaren oinarrizko irizpideak</li> </ul>
<b>Kodea</b>	Soc 01/03-2007
<b>Azken eguneratzea</b>	2007/01/20
<b>Mugaeguna</b>	Mugarik gabe